

Gonzalo Berceo eta zuberoko euskara

1. ERDARA, GAZTELANIA, EUSKARARI HITZ MAILEGATZEN?

J. M. Latxaga-k *Errioxako San Millan*, euskal iturri, liburuan, Edili-k Donostian 1974.urtean argitaratuan, idazleak azterleku, ikerleku ederra, gogora ekarri digu

«Berzeoko Gonzalo'ren lana irakurrita, bizpauru itz erabat euskaldunak berak ere erabiltzen dituela, ikusten da. Liburuaren bukaeran, itz saillen iztegian, liburu antolatzaileak euskal-itzak agertzen direnean, ala dio» itz onen iturburua ezezaguna dugu»; «gutxi gora beera au edo ura esan naiko du»... (li. aip. 33.orrialdean)

Halere Latxagaren oharrek, zehaztasun eta xehetasun frango falta dituzte; gainera Latxagak aipatzen duen «Olerkariaren Obra Osoa» Logroñoko Aldundiak argitaratua, ez da gehiago salgai; horregatik Guillermo Diaz-Plaja delakoak egin *Antología de la literatura española*, La Edad Media, Madrid 1974.urteko, loretegira jo dut. Liburu hortan, gaztelaniazko liburu askoren zehaztasun gabezia behaztopatu naiz: ondoren ematen duen hiztegiak ez naiz baliatu ahal izan, aipatu hitzak non erabiliak diren ez baitu azaltzen. Nonbait Berzeoren olerkietan, erdiak irakurri ditut eta buruxka gehiagorekin Latxagaren uztia handitu.

1.1. *Don Bildur* «El prior y el sacristán» olerkian, *Milagros de Nuestra Señora* bilduman agertzen da.

Erdaldun hiztegieleek, Azkueren hiztegiak baliatuz, «bildur» euskarazkoa bezala aitortzen dute.

1.2. *Sin olio*. Latxagak dio «naiz latinezkoa izan, euskaldunak bezala erabillia.6 aldiz». Baliteke, egiaz, euskarakada izatea.

1.3. *Hasca*. Latxagak euskal hitzen zerrendan jarri arren, hitz horren bigarren itxura *fasca* izateak, testuingurua, ta erdaldunem aburuak lagun, *hasca* «casi» da. Horregatik Berzeon *trasca / trae*, *hasca / hace*, *fasca / face / hace* ulertu behar dira, gure hizkuntzarekin ezer ez dutelarik ikusteko.

1.4. *Ardura*. J. M. Latxagak, kondairalariak, Berzeoren olerkitan hitz hori hamahirur bider irakurtzen dela, dio; hala ta guztiz ere ez genuke gazte-

laniak euskarari maillegatu hitza bezala hartuko, baina alderantziz. Errioxtar olerkariak honela darabil:

—/ fallecio la pecunia parose en *ardura* /
(in «Milagro de Teofilo»)

Erdal hiztegilariak «apretura, aflicción» bezala ematen du baina oraingo euskaraz indar handiena galdurik «cuidado» «souci», ala «inquietud» «inquiétude» uler genezake. Esan nahi horiek latinezko *ardor*-etik urrun irudi baldin badute, lehenik hitzaren itxurak latin jatorria salatzen digu, bigarrenik hitz asko daude orain «ez ondo» «artega» adierazteko, aintziña gauza kaltegarriagoa adierazten zutena, hala nola «enojado, ennuyé», aintziña «zauritua» esan nahiarekin. (ikus gure «*arrenkura*»)

1.5. *Asmar*. Latxagaren liburuan, hitz hori laurogei aldiz irakur ditekela Berzeon, baieztan da. Hitz herroak, gaztelania zaharrean, nafar erromantzean eta euskaraz esan nahi berdinxka dauka eta guk baliman nafar erdarari hartua: *asmar* «estimar por conjeturas» «penser par conjecture», latinezko *adaestimāre*, hitzetik, etorria.

1.6. *Zancaiada*. Gaurko gaztelanian *zancajada* ezaguna da, Berzeon honela irakurtzen da:

/ Quisole el diablo *zancaiada* poner. /
(in «Milagros de Nuestra Señora, «El clérigo embriagado»)

Corominas-ek bi iturri ematen dizkio; bata basa-latinezko *tzanga* «oiñetako mota» hitzetik, bestea arabiatik:

»arab. *sàc, sanc*, intercalada una «n» eufónica, «tibia» en R. Martín, pierna de animal, en P. de Alcalá, *crus, pars pedis inter genu et talus: zanca*.

Armiarma sare hortan sartu baino lehen, hona ohar nagusia: hitz hori eta kidekoak euskal sustraiezko bi hizkuntzatan arkitzen dira: gaztelanian eta gaskoinean. Gure ustez, bestalde, hitz hori *zango / zanka / anka*, euskalki guztietan dago eta, baliman, latina gabeko penintsula-hizkuntzeen arteko hitza, zen.

1.7. *Maxiela*. Behin *masiella*, bestean *maxiella* itxurapean irakurtzen da hitz hori; hain zuzen napar eta iparraldelko euskalkien *mazela, maxela, masela* iduri, hona nola:

Fueronli haciendo pecas ennas *masiellas* (Milagros)
Ttikak agertü zeitzon maxeletan(Z.)in «La abadesa encinta»
Se de mani a *maxiella* planiendo so mal fado

Eskiak maxeletan ezarri zütian, ziats gaixtoaz, plañitüz(Z.)
(in «Vida de San Millan»)

Ez dut iñon irakurri, Antonio Maria Labayen-ek in «Agur» 3.1973.I. 27.ko zenbakian dakarran *massala*, bizkaierazko itxurapean. Latxagak irudiarazten duen legean, ez dut uste gaztelaniak euskarari hartu dion, baina bien iturria latinezko *maxilla* delarik, beharbada Berzeok dakarran erromantze itxura euskal kutsukoa da.

1.8. *Zatico*. Gaztelaniazko «romancero» delakoetan, hiztegiek hitz hori dakarte, baina euskarazkoa dela aitorturik, axolagabeki, ez dute non irakur ditekian aipatzen. Erdaldunentzat *zatico* «mendrugo de pan» omen da, baina «Refranes del Marqués de Santillana», XV.mendeko bilduman eta gure egunetan, esate baterako Eibarren «txiki» esan nahia du. Berzeon «Vida de Santo Domingo de Silos» delakoan idoro dut:

— todos li davan algo, qui media, qui *çatico*.

denek zerbait emaiten, zoiñek erdia, zoiñek ogi *zatico*(Z)

Geroagoko erdi-haro erdal literaturan hitz hau maiz agertzen da.

1.9. *Arlote*. Berzeon, ba omen da, baina ez dut arkitu non. Ez nuke horregatik euskal iturriko hitzetan sartuko. Gaztelaniaz diote okzitanoari hartua izan dela, eta Simin Palay-en hiztegi nagusiak hala dakar: «*Arlot* (vx) truand, provençal *arleri*» (lib. aip. p. 51). Beraz oraingo gaskoinetik galtzen ari da, berdin gaztelaniaz ere salbu eta Santanderen, Araban eta Euskal Herrian, noski.

1.10. *Azkona*. Corominas-ek, basa latinezko *aucona* (IV.mendean) non irakur ditekian esan gabe, aipatzen du; hitz hori berantago galtzen da eta berriz azaltzen denean, euskaldunetaz mintzo idazkietan da: Aimery Picaud-ren «Jon Done Jakuerako bidea» lanean dio, XII.mendean:

— Navarrus aut Basclus ...duo jacula aut tria, que *auconas*
vocat, ex more manibus tulit...

Geroxago Jaufre trobadoreak, euskaldunez ari, berdin *aucona* erabiltzen du. Beraz berriago dirudi Berzeon, XIII.mendean irakurtzen den *azkona*. Uste dut gaztelaniak, halaxe, orduantxe diola euskarari hartu.

1.11. *Aina*. Latxagaren zerrenda, euskal iturriko hitz bezala emana da; gure ustez, Joan Corominasek dion legez, «pronto» esan nahi du eta latinezko *agīna* «actividad, prisa» hitzetik etorria.

1.12. *Trebeio*. Halaber *trebeio* nahiz *trebejo* «burla, juguete» latinezko *trīpūdiare* hitzaren ondokoa da.

1.13. *Toquiella*. Ez dut hitz hori Berzeon arkitu; hutsa izan behar du eta *cochiella* «punta de lanza» izango da, beraz euskararekin deusik ikusteko ez duena.

1.14. *Quimas*. Encina-ren obretan *quimas* azaltzen bada, Berzeon, adierazi berdinarekin *cimas* da, hots «rama de árbol» eta ez «crines» gure mintzairan bezala (nahiz biak latinetik etorri).

1.15. *Lande*. Ez dakit zergatik guretik hartua izango litzakeen, ez baitu, hor, «lur» adierazia, baina «ziri», «bellota». Gainera *landa* hitza ere guk germanerari hartu mailegua da.

1.16. *Otero*, ez du gure «urrezko eta jaspezko» landarearekin ezer ikusteko. Hitza, IX mendear geroz gaztelanian ezaguna da; latinezko *altarium* du, iturria.

1.17. *Chica*. L. Mitxelenak erakutsi eta Corominasek aipatzen duen gisa, *txipi* da, hitzaren euskal itxura zaharrena, beraz *chica* delakoak ez du gure *txiki* hitzagaz ahaidetasunik.

1.18. Latxagaren *basca* «disgusto» eta Labayen-en *naska* ez ditut Berzeon irakurri eta haien euskal iturria (aski? asko?) dudagarri da.

1.19. *Quirola*. Berzeon «Vida de San Millán» en dago, haurra gaixo utzita eta mirakuiluz etxeok itzultzean «quirolatan» arkitzen dute, *quirola* «regocijo, diversión, juego de manos» delarik. Euskaratik? ala latina gabeko hispaniar hizkuntza batetik?

2. BESTE ROMANCEROTAN AZALTZEN DIREN EUSKAL ITXURAZKO HITZAK

Hemen emanen ditudan hitzak, non aurki, non kausi ez baitu Díaz Plaja'ren bildumak esaten; huna, hala-hala aipatu loretegian, irakurri ditudan hitzak:

2.1. *Zenico*, *Senico*, *tennico* «cobarde» (?). Latxagak diona hunara alda genezake:

«Ezjakintasun aundia du; ez daki, gure Euskalerrian, Errioxatik goraxeago itz oiek daudela ta noiz nai erabiltzen ditugula»

Gure ustez eta dakidanez, sekulan aipatu ez den hitz hori, akitaniera zaharrean eta bizkaieran bazegoen eta *senico* da:

V.(iuus) senicco Senix/(...)

(Nebuzaneko Salbaterra eskualdean idoro, II.mendeko (?) hilhar-titza)

Beraz ez dut uste *Senico*, nahiz *tennico* (hutsa?) «cobarde» direnik, baina akitanierazko *senico*, bizkaierazko «seintxu», euskara orokorrean «haurtxo».

2.2. *Alcoholor*. Erdal literaturaren loretegi delakoak dakarran hiztegian, Diaz-Plaja-k *alcoholor* «joyas» (arab.) ematen du. Corominasek ez du aipatzen, ez du *alcorci* (ar.) «belarritako urre txindi» baizik ematen. Nahiz gaztelaniak *alcoholor* ahaztu duen, euskara begiratzailleak, zaintzailleak *altxor* «tesoro» berpiztu du.

2.3. *Alcandora*. Nahiz, bere zurtasuna gatik, Corominasek latinezko «candor» bat iturri ematen dion, iranira, nahiz arabia etimona ez dira baztertzeko. Euskarak, bederen, gaztelaniak bezala, arabiatik hartu duke, eta orain gizon «camisa» bezala erabiltzen jarraitu dugu, gaztelaniak ahaztu duelarik.

2.4. *Barruntar*. Luzaro aipatzen ditu bere dudamudak Corominasek. Ez ote du euskal erro bat, nahiz adierazi berdinarekin guk *barrandatu*, diogun. Itxurapen bikun horiek «interior» esateko bi erroekin hurbil genitza

barru (B.) hitzak *barrunta* eman du «espiar»

barren (G.) hitzak *barrandatu*, *barrendatu*, «espiar»

Beste hitz batzu badira gaztelaniaz ez hain argi, hala nola *barranco* (Zuberoko euskararen darabilguna). Ez ote da latinegabetako erdal sustraian *barr* — herro bat, euskaraz ere jatorra dena?

Berceo-k «varruntar» idatzen du «Milagros» etan, *La Iglesia profana*, olerkian. Euskal hitzaren bi itxurak ikusita ez nuke Corominas jarraituko dionean ez direla euskal, nahiz hispaniar hitz.

2.5. *Haçerico*. Erdaldun hiztegilariak «parece desgracia» itzultzen du, beti esan gabe non arkitzen den. Lehen urrats batean, *Hazeriko*, azeriaren pertsonaia ikus genezake, baina ez al da *façerico* baten beste azalpena? Ez ote da «astucia», «desgracia» baino? Corominas-ek ez du *acerico* baizik ematen, «almohada» bezala, «desgracia» tik urrun gabiltza. Beste aditz bat dago *façerir* «zaherir, reprehender» adieraziarekin; ez ote da hortik etorriko *haçerico* hau.

2.6. *Churumbela*, *charambela*. Diaz-Plaja-k «instrumento músico» itzultzen du. Oraingo gaztelaniaz *caramela* lizateke edo *caramillo* berriagoa; ez ote dira denak *charamel* gaskoinetik etorriak, herri hortako olerkariak trobadore zirenean.

3. ARABETIK GAZTELANIA TA EUSKARARA IRAGAN HITZAK

3.1. *Atorra*. Dakidanez, hitz hori ez da auskarara baizik iragan, hots ekialdeko euskarara (Zuberoa, Erronkari); arabiarrek dio *ad-dorrá'á*, esan-nahi berdinarekin.

3.2. *Aldarri*. «oihu, grito, cri» Bizkaieraz, ez ote da gaztelaniazko *alarido*, arabiar *al-harid* hitzetik hartua (Eguilaz e Yanguas hiztegia).

3.3. *Albiriste*. Ezpada gaztelaniazko *albricia*, ez ote da arabiar *al'bi-xara?* (ikus Eguilaz e Yanguas hiztegia).

3.4. *Alberdania* (B.) «axolagabe, sinvergüenza», baliman arabiarreko *al berdan* «loco» tik mailegatua (Eguilaz e Yanguas).

3.5. *Albaiteru* (B. G.) Gaztelaniaz bezala, *al'beytar* arabiarretik.

3.6. *Azagaia* (L. G.) ez dut frantses «sagaie» tik hartua den, baina hispaniar hizkuntzetan legez, bereber hizkuntzatik, *az'zágaya*.

3.7. *Adur*. Nonbait, latinezko *augurus*-etik etorria dela, *agur*-en gisa, irakurria dut. Gaztelaniazko *adur* «engaño» arabiar *ad-dur* 'etik, datorrela, diote (Eguilaz e Yanguas).

3.8. *Alborote*, *alborotar* (Erd. eusk.) *Al'boróz* arabiarrek, *alborozo* ta *alborote* eman luke Corominasek bigarrena berriago dela, latinetik katalanen bitartez gaztelanian sartua, erakutsi du. Zuberoan, jende nahiz erle talde batek burua galtzen duenean, *albo(r)otatürrik* zela, zion Larraíneko ama zenak.

3.9. Ezkontza hitzarmen batean, lehenbizikotz eta azkenekotz hitz hori agertzen da «ezkongai» erran-nahiarekin (ikus J. M. Satrustegui, F. L. V. 25.zbk, 113.orr.) euskal testuan; nik Cancionero de Baenan 354.orr. aurkitu dut:

/nunca alaroça seredes chamada/

arabiar *al'arósa* da «sponsa» in R. Martin «esposa, recién casada» in P. de Alcalá. Neronek Magrebian *aloza* «ezkongai» ikasi nuen. Euskal etimona baztertu beharko dugu.

4. BERCEO-REN HIZKUNTZA ETA ZUBEROKO EUSKARAREN MAILLEGUAK?

Gure euskalkiak, arrotz hitz asko «jesan» (Z.), maillegatu dituelako fama badu; gainera Larrasketen ondotik, hitz gehienak bearnes okzitanoari hartu ditugula dio, hizkuntzalari hori Bearnoko mugan sortua baitzen. Nere

jatorria berriz, Larrañe-Ligikoa, Naparroako muga izaki, aspaldidanik, Basabürüko üskarari gaztelania kutsua ezagutu diot. Kutsu hori ez da, baliman, garai bakoitzekoa, halaz ere Berzeoren lehen irakurketan, holako ezagun itxura nabaritu diot; huna ohar batzu:

4.1. *Arrenküra* (Z.) Hitz horrek Zuberoan *arrenküra* itxura badu eta sartaldeko *ardura* bezala erabiltzen dugu. Naparroa-Lapurdin, *arregura*, *arrangura* da. Larrasketek bearnesetik dela dio eta Simin Palay-en hiztegian irakurtzen da: *arrencura* «se plaindre exhiler ses regrets, autrefois action des pleureuses dans les funérailles» (p. 64). Beiaz erdarazko *rancura* (1076.urtean), *rencura* (1051) hitz berdina eta adierazi berdinxka «pena, aflicción» da. Corominasek ez du, gaztelaniak okzitanierari hartu diola aitortzen, baina *rancio* (lat. *rancidus*) multzoan sartzen. Naski, zuberorazko hitzaren itxura bearnesetik hurbilago da, baina ez ote da fonetikakideak garelakotz. Ez nuke hemen ebakiko. Irakur dezagun Berceo:

Udi nuestra rencura algun conseio dava.

(«Vida de Santo Domingo de Silos»)

Gaztelania ta euskararen artea, gure hizkuntzak ez duela hastapeneko «r»-rik onhartzten, ohartu behar da. Beharbada «la» erdal artikuluaeren soldatzetik dator, gure *arrenkura*.

Arrenkura, hitzarekin bigarren esaldiak erakusten digu hurbil hitzez hitz gaztelania zaharra jarraitzen duela zuberorak:

/ Qui tal cosa asmaba non li mengue rencura «Duelo de la Virgen»
Holako gauza asmatzen zuenak, ez *arrenküra* mengoatzen.

4.2. *Asmatü*. Hitz hau, gure euskalkian, «descubrir, pensar» adierazteko erabiltzen dugu:

— *Abil, ja, ahüntzak asmatzen 'tianez!*
Vete, a ver, si encuentras las cabras!

Berzeon maiz azaltzen da:

- Mas *asmo* un conseio por seso lo entiendo
(«Vida de San Millan»)
- *Asmaron* de toller iela, mas non ganaron nada.
(*Milagros de Nuestra Señora*, «La iglesia robada»)
- mas do era la puerta no lo sabian *asmar*
(*Milagros de Nuestra Señora*, «La iglesia robada»)
- «bena bortha nun zen etzien asmatzen» (Zub.)

Ederrena: Berzeoren bertso batzuk euskal kantu bat gogoratzen digute:

Berceo'k: *asmo de ser clérigo*, saber hacer fazañas

(.....)

plogo a *los parientes* quando le entendieron /

(«Vida de Santo Domingo de Silos»)

Euskal kantua:

Ttiki-ttikitik *aitak et'amak*

fraide ninduten nonbratu

(.....)

Salamankarat nindoalarik

bidean nuen *asmatu* /

Naski fraidetzen denean, lehenik aipatzen direnak etxeakoak dira, haien baimena, haien ukapena, minduriak eta poztarioak, baina hemen *asmatu* / *asmar*, *clérigo* / *fraide*, *parientes* / *padres* -en hurbiltasunak, dudamuda sortzen du: ez ote zuen Berceoren olerkia ezagutzen, euskal kantuaren egileak?

4.3. *Kuinta* (Z.) Hitz asko gure euskalkiak, gaztelania ta bearnesarekin komun ditu, maiz zer bide jarraitu duten ez baita errez asmatzen ez eta igartzen. Berceo'k maiz, *cuita* «queja, cuidado» bezala erabiltzen zuen eta gaurko zuberotarrek ere, usu, adierazi berdinarekin:

— /sin *cuita* et sin pan sin ninguna dolor/

(*Milagros de Nuestra Señora* «El parto maravilloso»)

— /tente con Dios a una par de *cuita* essida/

(*Milagros de Nuestra Señora* «El sacristán impúdico»)

Bestalde batzutan *cueyta* darabila Errioxatar olerkariak eta hain zuzen Zuberoako euskaran, bi gaztelani hitz horien aldapenak badaude: *kuinta*, *koeinta*. Corominasek dio gaztelaniak okzitanoari aspaldian hartu diola, hizkuntza hortan *coita* baitzen lehenago. Halaber Larrasquet-en arauera bearnesetik Zuberoko euskalkira, *coyente* hitza pasatu omen da. Simon Palay-en hiztegi handiak: «*coent*, occupation nécessité naturelle» ekarten du; beraz Zuberoako hitza, gaztelania zaharreko esan nahiari hurbilago da ezi ez eta bearnesari. Itxuraren aldetik bertiz, euskarazko hitzak «n» dakar eta gaztelaniak ez. Gauza bat, bederen, argi dago hitur hizkuntzeek hitz batzu elkarren artean badituztela, Gaztela, Bearno ta Euskal Herriaren artean Erdi-haroan harreman hestuek izan direlaketz.

4.4. *Tempora*. Zuberoako «trageria» zaharretan, zaharrenetan beti, *tempora*, *thempora* irakurtzen da (Konstantinoplako Helena, Errolan):

ukhenen ducie guero ere *thempora*
complimentu horien eguiteko.

(Helena, ms. 132, Albert Leonek bildua, 278 ort.)

Baliman hitza ez dugu, zuberotarrek, latinari zuzenka maillegatu, baina «romance» hizkuntza delakoaren bidez. Oraingo zuberoeran *denbo(r)a* da.

4.5. *Trufatu*. Hitz hori ez dut Gonzalo Berceoren olerkietan irakurri. Corominas-ek hunela dakar:

— con motes y *trufas* del tiempo más viejo.

(La Celestina, Acto III)

Hemen gure euskalkiaren adierazi berdinarekin dator; multzo hortako hitzetan *trufan*, *truhan*, *truferia* badaude, *turruha*, arabiar hitzetik aldatuak.

4.6. *Pleteiü* (Z). Metatesi bidez hitz hau *pleito* gaztelaniazkotik zuzen ala oker etorria da, hala nola *pleteiatü* aditza, *pleteiar* gaztelaniatik:

— Ovieron por çient çientos sueldos a *pleteiar*.

(in «Vida de San Millán»)

4.7. *Gisa* (Z.) Gure euskalkiko hitz arrunta, egunerokoa da. Larrasquet-ek ez du emaiten eta Lhanderen hiztegian, frantses «guise»-kin hurbiltzen da. Berceo-k erabiltzen du:

Que siempre non vengamos de tal *guisa* plorando

Ez gitian bethi jin *gisa* hortan nigarrez (Z.)

Hitzaren azken «a» bokalak, ez dela frantsesetik zuzenka etorri, erakusten digu, nahiz euskaldunek nahiz gaztelarrek, baliman gaskoin aldeko okzitanoari hartu dugu. Ohargarri da nola gizajokabidearen hiztegia trobadoreen hizkuntzaz kutsutua izan den, Euskal Herrian, orobat Gaztela Herrian.

4.8. *Sothil*, *xotil* (Z.). Lhanderen hiztegian frantsesezko *subtil* etik emana da, baina frantses zaharrea ere ez da «o» rik izan F. Villon-ek andere batez mintzo dio «qui prenoit les plus soubtilz» («Les Regrets de la Belle Haumière»); bestalde gaztelaniaz *sotil* badago. Aintziña euskara guztian asko erabili da: *gizon ...sotil* (Milia Lasturkoren, eresia), baita gaur ere *sotil* da napar-euskararen. Larrasquet-ek gaizki itzulia du hitz hori, Barkoixeko ahidaren arauera, ez da sekulan «malingre» baina «fin»

lanian xotilki ari «lanean finki ari»

khorpitz sotila «gorputz fiña»

Berzeok berriz

un savior diablo *sotil* et muy mutero
(in «El sacristán impúdico»)

Beraz guk gaztelaniari hartu diogu *sotil* eta harek nori, beste kondua da.

4.9. *Afruntü* (Z.). Nahiz hitz hori oso ezaguna eta erabilia izan, Lhanderen eta Larrasqueten hiztegiek baztertu dute, beharbada erdara bate-tik hartua baita. Bearnese hitza bilatzen badugu, Simin Palayek: *afroun*: affront, avanie, outrage, injure (17.orr.) dakar; baina hitz horrek azkeneko -tü falta du; ez ote da zuberoko hitza gaztelaniazko *afruento*-tik etorri, nola *apustu* «apuesto»-tik, *dolu* «duelo»-tik, *arrapostü* «repuesto (arag.)» hitze-tik. Berceo-k «El clérigo embriagado» delakoan *afruento* darabila.

4.10. *Gütizia* (Z.). Ez da baliman, latinezko *cupditia* hitzetik zuzenki etorri, ez eta gaztelania berriko *codicia*-tik, baina gaztelania zaharreko *cudicia* hitzetik segurago. Berzeok honela dakar:

los omnes cudiçiosos
(in «De los signos que aparecerán antes del Juicio»).

4.11. *Eskerniatü* (Z.). Napar. Lapurdiko euskalkitan *eskarni*- herro-dun hitzak ikusten ditugu eta Zuberoan *eskerni*- herrokoak entzuten. Gauza bitxiena da Corominas-ek, bi herro mota horiek harturik, gaztelania gatik egiten duen arrazoibidea, german iturri bat bilatzeko Frantses *escharnir* hi-tzetik hartu omen genuke guziek, eta harek german herro batetik *skeirnijan* ala *skairnijan*? Eztabaidan sartu gabe ohar dezagun bi itxurak, euskaraz, ar-kitzen direla. Berzeok hitza asko erabiltzen du:

/ nunca mas fo osado al monge *escarnir* /
(in «Milagros de Nuestra Señora» «El clérigo embriagado»)
/ los que testigan falso a los *escarnidores* /
(in «De los signos que aparecerán antes del Juicio»)

Diaz Plaja-k «afligir, affliger» itzultzen du eta Corominasek «burlar». Gure euskalkian ere lehen adierazia jarraikiz: «*lanean eskerniatü*» cansarse en el trabajo, bezala erabiltzen dugu; Lapurdin, berriz, *eskarniatu* «afligir» eta «burlar» esan nahiak dituzte. Ez ote da hitz hori, gazteleraz eta euskaraz, gaskoinaren bidez sartu. Simin Palayek *escarni* «contrefaire, imiter» ekar-tzen du.

4.12. *Zaia* (Z.). Zuberoan «gonaz luzeari» hala deritzaio eta Berzeok hau idatzi du:

- tollièronli la *saia* maguer que li pesava
«Zaia idoki zioen, nahiz gaitzitü zeion (Z.)»
in «Milagros de Nuestra Señora» — La abadesa encinta.
- el servicio que faces a la *saya* de lana
«egiten dian zerbützia eta ilhezko *zaia*. (Z.)»
in «Vida de Santa Oria»

Beharbada gure hizkuntzak frantseseko *saie* hitza maillegatu du; ala bi mintzairek erromatar gudarien *sagum* beren gisa aldatu? *Braga*-k frantsesean *braie* eman duen moduan? Morfologia aldakuntzaz kanpo, adierazian txirritada, lerrakuntza gaitza bada, hots «kapa labur» etik «gonaz luze» raino.

4.13. *Mizkandi*, *Mixkandi* (Z.). Etimon biltzaleei buruhauste ederra eman du hitz horrek. Zuberoan, etxekoan belaunaldian oso erabilia zen, garai hartan, euskaldun nekezari seme-alabeentzat ez baitzen, morroin eta nes-kame joaitea baino, beste lanik. Berzeon ere, *mezquino*, maiz agertzen da, arabiar *mezkin* «pauper» hitzetik aldatua. *Mizkandi* ez ote da *mezkin* handi?

4.14. *Eya* (Z.). Galdera bide hori esaldiaren hastapenean, Zuberoako euskarari, oso zabaldua da. Berzeok:

- Eya* velar! (Milagros de Nuestra Señora-Duelo de la Virgen)
- Eya* beillatzer! (Z.)

Non noizkoak diren mailleguak jakiteko kondairaz baliatu behar dugu. Hamargarren mendetik hamabirañi Zuberoako herria Nafarroako zen, XII.-mendetik, XIV.era bizkonterria Nafarroako herrikidea izan da; beraz laurhun urteez Zuberoaren hizkuntza nagusia napar erromantzea izan da; nahiko denbora luzea gure euskalkiak, erdi-haro hartan, hitz meta ederra maillega dezan; geroztik maillegatze horrek jarraitu, baina XV-XVI garren mendeetan, trobadoreen bidez eta geroago gobernu-hizkuntza izanki, gaskoin bearnesetik hitzak hartuko ditugu, frantsesak lekua hartu arte.

Hemos intentado un sondeo en el vocabulario del poeta Riojano Gonzalo Berceo con el fin de localizar los «vasquismos» que se le atribuyen, analizarlos, buscar nuevas palabras; a la par, hemos recogido palabras del Romance que no se han conservado en el castellano contemporáneo y que se leen en Berceo y perduran en euskera; al final analizamos palabras del habla suletina de origen romance, recordando que el Romance navarro ha sido idioma principal de Zuberoa desde el siglo X hasta el siglo XIV.

TXOMIN PEILLEN

En la categoría de los vasquismos podemos clasificar a las siguientes palabras: *bildur*, *zancaiada*, *zatico*, *azkona*, *barruntar*, que se leen en otros poetas. Al revés, en la serie de préstamos que proceden directamente o indirectamente del árabe encontramos a las palabras euskaras: *altxor*, *alberdania*, *altxor*, *atorra*, *aldarri*, *albaiteru*, *albiriste*, *alborote*, *alaroza adur*, *trufa*; en la serie de las palabras suletinas de origen romance tenemos: *afruntü* (afruento), *dolü* (duelo), *ardüra* (ardura), *asmatü* (asmar), *kuinta* (cuita?), *arrenküra* (rencura), *gisa* (guisa), *gütizia* (cudiçia), *eskerniatü* (escarnir), *maxela* (masiela), *pleteiatü* (pleteiar), *Zaia* (saia), *Sothil* (sotil) y el morfema interrogativo *eya*.

En cuanto a *senico* o *tennico* (errata) traducido del romance —con dudas— «cobarde» (?) se trata del aquitano y bizcaino antiguo *seniko* «chiquillo». Los préstamos de este estudio son tan arraigados en el idioma que ya no se puede hablar, en tono normativo, de «erderismos». El euskara, otra vez, da muestras de su carácter de conservatorio y su utilidad en el estudio del castellano antiguo. Notamos que los préstamos se sitúan en el campo del léxico psicológico y que muchas veces no se puede determinar si se trata de una aportación occitana o romance navarra, puesto que muchas de estas palabras aparecen por vez primera en la obra de los trovadores.

Txomin PEILLEN Uzei-ekoa

BIBLIOGRAFIA

- COROMINAS, Joan, *Diccionario etimológico de la lengua castellana*, 4 vols. Madrid, 1954-1957.
- DÍAZ PLAJA, Luis, *Antología de la literatura española*, tomo "La Edad Media". Madrid, 1974.
- EGUILAZ e YANGUAS, *Glosario etimológico de las palabras españolas de origen oriental*, Ed. Atlas. Madrid, 1974.
- FRAGO GARCÍA, Juan A., *Notas cronológicas del léxico español en la onomástica personal navarro-aragonesa de los siglos XI-XIII* in FLV, año IX, núm. 26. Pamplona, 1977, pp. 239-258.
- PALAY, Simin, *Dictionnaire du béarnais et du gascon*, Edition du CNRS. Paris, 1974.
- VON WARTBURG, W. y BLOCH, O., *Dictionnaire étymologique de la langue française*, P. U. F. Coll. Que sais-je? Paris, 1968.